

DIALEKTOAK HIZKUNTZA

Deskribapena: Hego Afrikako imajinak agertzen dira.

Kike (off ahotsa): Hegoafrikan hamaika hizkuntza ofizial daude eta afrikaansa horietako bat da. Holandesaren dialekto bat izaten jaio zen baina ingelesa, Malaysiera, Portugesa, zulu eta gainerako beste hizkuntza desberdin batzuekin nahastu eta gero, bera ere hizkuntza bilakatu zen. Baina hau ohikoa ote da?

Deskribapena: Kike eta Lionel Joly Zarautzeko malekoitik paseatzen eta elkarrizketan ageri dira:

Kike: Eta gertatu liteke lehen hizkuntza zena gero dialekto bihurtzea edo lehen dialekto zena gero hizkuntza bihurtzea?

Lionel: Latinaren kasua adibidez har daiteke. Ba latina zabaldu zen, ba, Inperio erromatarrekin zera Europa guztira eta Ipar Afrikara eta toki guztietan ezberdin hitz egiten zen. Gero Inperio romanoa jausi zenean ba, toki bakoitzak hartu zuen bere autonomia eta gero estatu berriak sortzen direnean ba hor, hizkuntzatzat jotzen dira, ba, gaztelaniaz adibidez, Nebrijaren gramatikan argi agertzen da, ba, inperioa eta gaztelania elkar lotuta daude.